

Herririk Herri

Ashley Madisonen datuen filtrazioak internet bidez
ligatzeko plataformen inguruko eztabaida azaleratu du > 4

HiriEkimenak mozioa aurkeztuko du Zornotzak errefuxiatuak hartu ditzan

HiriEkimenak hainbat ekimen zehatz jasotzen dituen mozioa sartu du udalean, hurrengo udalbatzarrean eztabaidatu dadin. Egoeraren aurrean, "ezin dugu beste alde batera begiratu". Errefuxiatuei udal jabetzakoak diren etxebizitza libreak eskaintzea proposatu dute, eta, behar balitz, baita Kutxabanken jabetzakoak diren bizileku hutsak ere. > 9

*"Familian beti jakin
izan dugu osaba Pedro
non lurperatu zuten"*

Karmele Larrozea | Pedro Uriguenen iloba



Mendilibar, hankak lurrean

Futboleko Liga martxan dago, eta Mendilibar zaldibartarrak gidatzen duen Eibar bikain hasi da. Edozelan ere, mailari eusteko helburua argia da. Futbolak eragiten duen zurrunbiloaz ere egin du berba hankak lurrean dituen entrenatzaileak. > 15

ARGAZKI PRESS

hitz #gomendioak
liburudenda
artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com



HELDUENTZAT
BIDEZ BIDE
NAFARROAKO ERRESUMAKO
GOTORLEKUEAN BARRENA
Juan Mari Feliu (2014)



UME ETA GAZTEENTZAT
ZIENTZIA HAURENTZAT
SEGUNDO GUTXIAN
Jean Potter (2012)



MUSIKA
ELUSTONDO
Elustondo (2015)

ekin ner group

ekin S. Coop.
Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)
48340 AMOREBIETA
www.ekin.es

Durango > 6

EH Bilduk Pilar Riosen dimisioa eskatu du enplegu arloan

Mañaria > 3

Zalloventa Markomin Goikoako soberakinekin beteko dute

Durangaldea > 5

Aitor Lopez EH Bilduren hautagaia Amankomunazgoan

Atxondo > 7

Eskola legezatzeko plan berezia Aldundiaren onespeneraren zain

Herririk herri**EH Bildu: “Pilar Rios enplegu arloko kargutik kentzea eskatzen dugu”**

Pilar Ríosek prentsa oharrean EH Bilduren kritikei erantzun die: “Gure bekatu bakarra epe luzeko hamaika langabek hilean 2.551 euro kobratzea izan da”

DURANGO J. Derteano

Lan Ikuskaritzak 6.251 euroko isuna ipini dio Durangoko Udalarari langile batzuen kontratazio motan “arau hauste larriak” ikusita. EH Bilduren ustez, Pilar Rios zinegotzia (PSE-EE) izan zen kontratazio “ilegal” hori sustatu zuena aurreko legegintzaldian. Gaur egun, enplegu arloko zinegotzi arduraduna da, eta gobernu taldeari “kargutik kentzeko” eskatu diote.

Gainera, isuna EAJ eta PSE-EEren artean erdibana ordaintzeko eskatu du: “Euren ilegaltasunak ez ditugu herritarrok ordaindu behar. Beraz, guretzako zuzena izango litzateke udal talde hauek jasotzen duten diru partidetatik ordaintzea”. Hurrengo osoko bilkuran gai honekin beste mozio bat aurkeztuko dutela ere iragarri dute: “Kalitatezko enplegu publikoa

defendatzeko plan bat izango da, gaur egun dauden beharrian eta gabeziei aurre egiteaz gainera, dagoen behin betikotasunari aurre egitea helburu duena”.

Durangoko sozialistek EH Bilduren kritikei erantzun diete. Prentsa oharrean diotenez, “zer edo zer ondo egiten ibiliko gara ehun egun pasatu orduko ordezkatu nahi gaituztenean”. Pilar Ríosek azaldu duenez, PSE-EEK isuna errekurritu egingo du “udal gehienek formula” jarraitu dutela argudiatuz. Rios zinegotzi sozialistak gaineratu duenez, “gure bekatu bakarra epe luzeko hamaika langabek hilean 2.551 euro kobratzea izan da”.

Gobernu Taldeak helegitea
Gobernu Taldea (EAJ-PSE-EE) ez dago ados Lan Ikuskaritzak jarritako isunagaz: “Erabakia

ez zaigu bidezkoa iruditzen”, adierazi dute idatziz: “Udalak zuzen jokatu du momentu oro, eta legediak ezartzen zituen arauak errespetatu dira”. Beraz, Lan Ikuskaritzaren isunaren aurrean, “udalak helegite administratiboa jarriko du”.

ELAren salaketa

Lan Ikuskaritzaren isunak ELA sindikatuak udalaren kontrajarritako salaketan du sorburua. Izan ere, Lanbidek 162.000 euro eman zizkion udalari, Jaurlaritzako Enplegu Plana finantzatzeko. Baina, kontratazioak gizarteratzea sustatzen duen Zabaltzen-Sartu erakundearen bitartez egin ziren. Langileei Bizkaiko sektoreko hitzarmena ezarri zitzaizen udal hitzarmena beharrez, eta sei hileko epean bakoitzak 3.000 euro gutxiago jasoz zituen ELAren arabera.



Dani Maeztu eta Eider Uribe Durangoko EHBilduko zinegotziak prentsaurrekoan.



Pilar Rios PSE-EEko zinegotzia.



HAZeko obretan 22.000 euro erabili dituzte aurtan.

Irisgarritasun akatsak topatu dituzte arreta zerbitzuan

Aurtan berriro egin behar izan dituzte obrak HAZen

DURANGO Markel Onaindia Andra Maritik udaletxeko beheko solairura lekualdatu zuen udalak iaz Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ), alokairua aurreztu asmoz. Obrarako, 58.000 euro erabili zituen. Bada, aurtengo udan berriro obrak egin behar izan ditu, eta 22.000 euro inbertitu ditu. Julián Riosen (Herriaren Eskubidea) arabera, udal arduradunek irisgarritasun akatsak topatu zituzten, leihatilan adibidez. Horiek konpontzeaz gainera, 24 orduko ma-

kina bat instalatzea ere badago proiektuan.

Riosek esan du HAZek ez zuela legea betetzen, eta EAJ eta PSE-EEren udal gobernuak kritikatu du gestioagatik. Gainera, erantzukizun falta egotzi die, eta akatsak teknikariei leporatu dizkietela ohartarazi du. Riosen ustez, HAZeko arazoak ez dira amaitu. Sarrerako ateak pisu handia duela gogoratu du, eta bigarren obra honetan ere ez dute aldatu. Bestalde, berogailua ezartzea falta dela uste du.

BNI taldea Lehendakariagaz elkartu da

DURANGO M.O.

BNI Durango enpresa taldeko kideak Urkullu Lehendakariagaz elkartu ziren eguaztenean, sortu berri den taldea zuzenean aurkezteko. Guztira, 1.100 behargin dituzten Durangaldeko 42 enpresak osatu dute BNI Durango taldea, eta hilabete bi daramatzate elkarlanean.

BNIk Espainiar Estatu osoan dauzka taldeak, eta erreferentzia bidezko marketingeko erakunde profesionala da. Hau da, erreferentziak partekatuz enpresek bezeroak lortzea da euren helburua.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko irailaren 4a,
13. urtea - 600. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
eta Ixaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Zalloventa lurrez betetzeko 100 kamioi erabiliko dituzte eguneko

Zalloventa harrobia laster hasiko dira betetzen, Markomin Goikoako lurrekin



210.000 metro kubiko lur beharko dira Zalloventa harrobia betetzeko.

MAÑARIA Markel Onaindia Zalloventa harrobiaren berreskurapen prozesua martxan dago, eta laster hasiko dira lurrez betetzen. Horretarako, Markomin Goikoa harrobiko soberakinak erabiliko dituzte; 210.000 metro kubiko, hain zuzen ere. Enpresak, berez, urte biko epea dauka berreskurapena amaitzeko, baina “ahalik eta arinen” amaitzeko borondatea dauka, Endika Jaio alkatearen arabera. Harrobia lurrez betetzeko, eguneko 100 kamioi-bidaia egingo dituzte enpresako beharginek.

Jaiok adierazi duenez, udalean jakitun dira kamioien joan-etorriak inguruetan sortuko duen “enbarazuaz”. Hori dela-eta, auzotarrekin batzara egin dute dagoeneko, egoeraz informatzeko.

“Zikloa itxi”

Edozelan ere, lan hori egin beharrekoa dela esan du Jaiok, eta baikorra izan da balorazioa egiterakoan: “Nahiz eta denbora batez enbarazu egin, lanei esker harrobiaren zikloa itxi egingo da”. Eusko Jaurlaritzak 2010ean agindu zuen harro-

bia ixtea; aurretik, auzitegiek atzera bota zuten enpresaren ustiapen berrirako eskaera, eta Urkiolako Parke Naturaleko patronatuak ere harrobien hedapena mugatu zuen.

Jaurlaritzak harrobia berreskuratzeko agindua eman zion enpresari, eta instalazioak kendu zituzten. Orain, betetzen hasteko hasierako obra batzuk garatzen dabilta, eta laster hasiko dira lurra ekartzen.

Errepideak erabiltzearen eta obra baimenaren tasengatik, 300.000 euro inguru ordainduko dizkio enpresak udalari.

Ehiza paseko zozketak egingo ditu Mugarra Ateneoak

MAÑARIA M. O.

Mugarra Ateneo Zinegetikoak udazkeneko ehiza paserako postuak lortzeko zozketak egingo ditu datozen asteetan. Saibigain-Iturriotz pase lerroko postuak dira zozkatuko direnak, iraila-urria eta azaroa-abendua epeetarako, hain zuzen ere. Datorren irailaren 18an izango da lehenengo zozketa, 20:00etan, udaletxeko lokalean, eta 15a izango da eskaerak aurkezteko azken eguna. Bazkideentzako zozketa, ostera, hilaren 22an egingo dute, 19:00etan.

Azarorako eta abendurako zozketa urriaren 2an burutuko dute, 20:00etan, eta bazkideek urriaren 20an edukiko dute hizordua, 19:00etan.

Horrez gainera, kontrolpeko ehiza eremurako zozketak egingo dituzte urriaren 2an eta 22an, azaroaren 19an eta abenduaren 2an. Guztiak 19:00etan hasiko dira.

Datorren irailaren 18an izango da lehenengo zozketa, 20:00etan, udaletxeko lokalean

Orobiogoiak monitore berria aukeratuko du laguntza klaserako

OTXANDIO J. Derteano

Iurretako Juan Orobiogoiak ikastetxean, Iurretako ikasleez gainera, beste herri batzuetakoak ere badituzte, Otxandio-koak tartean. Herri horietan, *Bidelagun* proiektua martxan jartzen dute urtero: ikasleentzako laguntza klaseak dira.

Otxandion monitore izan denak lana utzi du, eta beste baten bila dabilta. Hautagaiek hiru baldintza bete behar dituzte: otxandiarra izatea, Juan Orobiogoiak ikasle ohia izatea, eta irakaskuntzarekin lotutako prestakuntza zein esperientzia izatea. Baldintza horiek betetzen dituzten lagun bik bidali dute euren *curriculum*-a. Datorren astean elkarrizketak egingo dizkiete, eta ondoren erabakiko dute postua nori eman.

DBH 1. zikloko ikasleei zuzendutako laguntza klaseak Otxandion izango dira, urritik ekainera, astean lau egunetan: astelehenetik egunerako arratsaldetan, ordubetez. Hainbat gai jorratuko dituzte: etxeko lanekin laguntzea, ikasteknikak irakastea... Koordinatzaileekin ere batuko dira proiektuaren jarraipena egiteko, eta irakasle ebaluazio bileretan parte hartuko dute. Hasi aurretik prestakuntza jasoko dute.

“Txiki-txikitatik gustatu izan zaidan afizioa da marraztea”

Marina Barandikak diseinatu du jaietako kartela

IZURTZA J. Derteano

Aurtengo Izurtzako jaiak Marina Barandika gazteak (Durango, 1997) diseinatutako kartelak iragartzen ditu. Jaietan, batez ere giro herrikoia izaten dela dio, eta hori islatu gura izan du kartelean, auzoetako izen

denekin pertsona baten irudia marraztuz.

“Marraztea txiki-txikitatik gustatu izan zaidan afizioa da”, adierazi du. Hein handian, lau urte nagusiagoa den bere lehengusuarengandik datorkio afizioa. Iker Barandikak birri-

tan irabazi du Izurtzako kartel lehiaketa —iaz azkenengoz— eta sarritan elkarrekin lantzen dituzte kartelak. Marina Barandikarentzat toki ezaguna da Izurtza. Bere izeko Etxano auzoan bizi da, eta han ematen ditu domekak zein udako hainbat egun: “Ia-ia nire bigarren etxea da”, dio. Beraz, jaiak ere gertutik biziko ditu. Domekan Santa Agedara joango da eta irailaren 12ko tortilla txapelketa ere bertatik bertara jarraituko du, bere izekok parte hartzen duelako: “Iaz bigarren geratu zen”.



Marina Barandika Izurtzan, berak diseinatutako kartelaren ondoan.

Chimeneas
Cerámicas **MACOBER**
Sanitarios

MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa

CRIS ACADEMIA **step 2014** **CAMBRIDGE ENGLISH Language Assessment**
Authorised Centre

- 2015-2016 ikasturteko matrikula dohainik.
- Irailaren 10ean 16:30ean emango dira ikasturteko ordutegiak.
- Emaitzarik onenak lortuko dituzu.
- Cambridgeko azterketa ofizialak prestatzen lagunduko dizugu; Durangaldeko zentro ofiziala gara.
- Ingeles maila guztiak haurrentzako eta helduentzako.
- KET, PET, FIRST eta ADVANCE.

2015-2016 IKASTURTE BERRIA

Musiko Altuna, 11 behea
48200 Durango
Tel.: 605 368 929

Interneten ligatzeko plataformak, gero eta jende gehiagorentzako ate berriak

Ashley Madison ligatzeko plataformaren erabiltzaile batek bere esperientzia kontatu dio ANBOTOrri



Ashley Madisonen erabiltzaileak dio "lelokeria" dela datuak herrika sailkatzea.

DURANGALDEA M.O. / I.E.

Lagunarte askotako berbagaia izan da azken egunotan Ashley Madisonen (Interneten ezkonduentzako ligatzeko zerbitzua) erabiltzaileen datuen filtrazioa. Hedabide ugari gaizkileak balira bezala tratatu dituzte erabiltzaileak, eta fideltasun ezaren gaiak morboa eragin du. Durangon 7.000 erabiltzaile direla ere argitara irten zen prentsan; hori bai, txarto emanda. Mundu

osoko Durango herriak batuta irteten da emaitza hori; hemen-go Durangon, 500 inguru omen dira erabiltzaileak.

Baina, datuen morboaz harago, sakoneko arrazoietan murgildu, eta Ashley Madisonen erabiltzaile bategaz kontaktatu du ANBOTOk. Durangaldeko 50 bat urteko emakume honek –izena ez du publiko egin gura izan– banandu ostean eman zuen izena, duela urte eta erdi.

Beraz, erabiltzaile guztiak ez dira ezkonduak, eta herrien araberrako datuak ere ez dira fidagarriak: "Lelokeria handia da erabiltzaile kopurua herrika azaltzearen kontu hori. Sare horrietan, hartu-eman egin arte, inork ez daki benetan bestea nongoa den; datuak faltsuak izaten dira". Emakumeak aitortu du, hasieran beldur zela datuen segurtasuna dela-eta, baina, jakinmina piztu, eta ausartu egin

zen. Bere esanetan, horrelako zerbitzuek ate bat zabaldu diote banandu ostean.

Ashley Madison zerbitzuan mugitzen dena azaldu du: "Plataforma horretan ezagutu ditudan erabiltzaile asko bikotean bizi direnak dira, gizonezkoak. Bikotekideagaz adostu barik, ezkutuan, beste hartu-eman batzuk edukitzea gura dutenak. Askok, bikote bizitzak eskaintzen

"Askok, bikote bizitzak eskaintzen diena baino sexu hartu-eman gehiago bilatzen dutenak dira"

diena baino sexu hartu-eman gehiago bilatzen dutenak dira, edo familiaren egitura guztia eduki arren, hartu-eman sexualtan gabezia sentitzen dutenak. Euren fantasiak gauzatzeko helburuz etortzen dira".

Mugarik ez dagoenez, ordenagailu aurrean kateatzeko arriskua da alde negatiboa. Emakumeak dio, batzuetan kafe bat hartu duela bakarrik; beste batzuetan sexua praktikatu duela: "Nire kasuan behintzat, ez da erlazio egonkorrik sortu sare hauetatik. Gizon gehienak

esperimentatzen dabilta, eta norbera ere horretan dabil. Egia da beti daukagula buruan nonbaiten agertuko dela bikotekide aproposa, baina konturatzen zara horretarako lekurik egokiena ez dela hau".

Bere adinean zail ikusten du bikote egonkorra topatzea: "Urteek aurrera egin ahala, hartu-emanak gero eta desegonkorragoak direla iruditzen zait: ez gaude zenbait gauza onartzeko prest, eta hartu-eman bat usteltzen hasten denean, utzi egiten dugu".

Emakumea esplorazio etapa bat bizitzen dabil. "Jendea hain arin ez epaitzen ikasi dut mundu honetan nabilenetik". Zibersexua ere probatu du, eta "gozamina handia" izan daitekeela dio, garbia izateaz aparte.

Kaixomaitia.com

Baina, euskaldunak ez al ginen, bada, gatzik bakoak? Ez dirudi guztiz egia, *Kaixomaitia.com* kontaktu zerbitzuaren datuak ikusita. 4.000 erabiltzaile ditu webguneak; Iñigo Arandiak (Tolosa, 1974) sortu zuen 2007an.

Plataforma berritzen dabilta, eta epe laburrean 10.000 erabiltzaile izatera heldu gura dute. Internetetik kanpoko ekintzak antolatu gura dituzte –pintxo-poteak edo mendi irteerak, adibidez– eta maitasun ereduaren inguruko hausnarketa ere bultzatuko dute webgunean. Izan ere, "arautik ateratzen den guztiari egurra ematen zaio", Arandiaren ustez. "Kontua da: zergatik dago Ashley Madison bezalako zerbitzu bat, 37 milioi erabiltzaileguz?"

"Internet bidez, berba bako komunikazioa galtzen da"

Internet bidez ligatzearen abantailez eta arriskuez berba egin du Ugarteburuk



Oihane Ugarteburu sexologoa.

ELKARRIZKETA M.O.

Lahia-Nahia taldeko Oihane Ugarteburu (Durango, 1986) sexologoak ligatzeko tresna berrien analisia egin du.

Zelan ikusten duzu Internet bidez ligatzea?

Pertsonak ezagutu eta erlazioatzeko beste bide bat da, eta, jende bati beste pertsona batzuekin lehenengo kontaktua egiteko erraztasunak ematen dizkio. Hala ere, berba bako hizkuntza galtzen da. Komunikazio mota horrek, bere baitan hartzen ditu gorputz jarrera, ahotsaren tonua, isiluneak... Elkarrizketa bat dugunean, hitzez esaten denaren besteko garrantzia dauka gorputzak, eta internetez izaten diren elka-

rrizketa gehienetan komunikazio era hau galdu egiten da, irudien bitartez emozioen adierazpena transmititzen saiatu arren. Bestalde, kontaktua fisikoaren kontua dago; erlazioatzeko beharrezkoa da, eta internetez ezinezkoa da hori.

Ashley Madisonen kasuan, erabiltzaileak publikoki epaituak izan dira.

Gizartean gailentzen den maitatzeko eredu erromantikoa, erlazio monogamikoak onartzen ditu soilik. Ondorioz, hortik ateratzen diren hartu-eman guztiak erruduntasunagaz bizi ohi ditugu. Gainera, betikotasuna hausten duen erruduna bilatzeari ekiten diogu. "Errua", fideltasuna gorde ez duen pertsonari leporatzen zaio normalean, Ashley Madisonen kasuan gertatzen den bezala. Baina, aldi berean, adarrak jarri dizkiotenari ere leporatzen zaio, edo hirugarren pertsonaren bati.

Ze aholku emango zenioke Internetez ligatzea probatu gura duenari?

Garrantzitsuen informazio zuzena edukitzea da: zein den orrialde hauen benetako helburua, gure datuen pribatasunaren inguruko informazioa...

Gazteak ere izango dira erabiltzaileak...

Gazteen gehiengoak internet, eta, batez ere, sare sozialak erabiltzen ditu lagunekin kontaktuan egoteko edo beste batzuk ezagutzeko. Bikotekideen kasuan, batzuek Whatsapp kontrolatzeko tresna gisa erabiltzen dute, azken konexioa ze orduan izan den ikusteko, adibidez. Bestalde, gazteek sare sozialetan erakusten duten irudiaren gaia dago; besteen iritziaren arabera erakutsi nahi izaten dute euren irudia. Neska gehienek beraien gorputz irudiari ematen diote garrantzia, hori baita gizartean emakumeengan baloratzen dena.

Aitor Lopez izango da EH Bilduren hautagaia Amankomunazgorako

Gobernatzea lortuz gero, Lopezek esan du gestio “dinamikoa” egin gura dutela

DURANGALDEA M. O.

Datozen asteetan burutuko da Amankomunazgoa osatzeko bilkura, eta EH Bilduk izendatu du presidente izateko hautagaia: Aitor Lopez. Zaldibarko zinegotzia da bera; 32 urte ditu, eta Administrazio eta Enpresa zuzendaritzan lizentziatua da.

Gobernatzea lortuz gero, Aitor Lopezek adierazi du gestio “dinamikoa” egin gura dutela.

“Ez dugu gura Amankomunazgoa zerbitzuen gestiorako bakarrik izatea”. Eskualdeko beste sektoreekin lankidetzan jardun gura dute, eta herritarrekin prozesu parte-hartzaileak has-te ere bai. Gainera, “Tokiko Garapeneko arlo indartsu bat” sortzea da EH Bilduren asmoa.

Udaletako ordezkari banaketaren arabera, EH Bilduk hamahiru kide izango ditu

Amankomunazgoan. EAJ dauka atzetik, hamaikagaz. Bestalde, Abadiñoako Independenteeak bi lortu dituzte, eta Durangon Podemos-Ahal Duguk babes-tutako Herriaren Eskubideak bat. Aurreko legealdian independenteeak jeltzaleei eman zizkieten aulkiak; orain, berdina gertatu arren, badirudi Herriaren Eskubideak edukiko duela Amankomunazgoko giltza.



Zaldibarko EH Bilduren hautagaizako argazkian, Aitor Lopez goiko lerroan, ezkerretik bosgarrena.

Kaleko argiteria sistema hobetzen jarraituko du udalak

ZALDIBAR Itsaso Esteban

72.591 euroko aurrekontuagaz, datozen asteetan ekingo dio Zaldibarko Udalak LED argiteria sistema ipintzeko lanen bigarren faseari. Kaleko argiteria eraginkorrago egiteko, 140 farol aldatuko dituzte Euskal Herria, Autonomia, Askorra, Bekoetxe, Bolatoki, Garitaerri, Olazar, San Martin, Zaldusolo, Zubiaurre eta eskola inguruan.

Zaharkituriko argiteria sistema LED sistemagatik aldatuta, udalak telegestio bitartez kontrolatuko du kaleko argiaren intentsitatea; beharriaren arabera, argiaren intentsitatea gehitu edo gutxituz.

Iaz hasi ziren Zaldibarren kaleko argiterian hobekuntzak egiten; udalak argindar konpainiekin dituen kontratuak aztertu eta hobetu ostean, 32.000 euro aurreztu zituen Zaldibarko Udalak. Horren ostean, 165 farol aldatu zituzten. Gobernu taldearen aurreikuspena da, aurrerago burutuko duten beste fase batean, Zaldibarko luminaria guztiak aldatzea.

Hainbat obra egin dituzte eskolan, opor sasoia baliatuz

MALLABIA Jone Guenetxea

Eskola umeak oporretan zeudela aprobetxatuz, hainbat hobekuntza lan egin dituzte Mallabiko eskolan. Alde batetik, teilatu-itoginak konpondu dituzte. Era berean, itoginek geletako hormetan kalteak eragin dituztenez, horma horiek margotu egin dituzte. Frontoiko egitura eta frontoia bera ere margotu dituzte.

Irisgarritasun neurriak hartu dituzte. Izan ere, eskolaren sarreran arrapala eraiki dute

Bestalde, irisgarritasunerako neurriak ere hartu dituzte. Izan ere, eskolaren sarreran arrapala eraiki dute.

Horrela, udako lanak amaituta, Mallabiko eskolan dena prest dago, datorren irailaren 8an herriko eskola umeek ikasurte berriari hasiera emateko.

IRAILEAN MATRIKULAZIOA ZABALIK

MAGAZTEN UNIBERTSITATEA POLITEKNIKOA
LEZAMA 48100 LEZAMA (G) 943 71 21 91

Mekatronika Industrialia

Robotaren muntaiak eta mantentzeak arduratzen dira

Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta piezaak laurikatzen dira:

Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoz eta energia hornitzeaz arduratzen dira

Informazio gehiago: 943 71 21 91

Lanerako

Mikel Irizar (Ormaiztegi, 1954) | Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria Gipuzkoako Foru Aldundian

“Durangaldeak zubi lana egin dezake Bizkaiaren eta Gipuzkoaren artean”



telaniaz ikasi behar izan nuela, euskara debekatuta zegoelako. Baliabide asko jarri zen euskararen kontra; orain, legezkoa eta justiziazkoa da euskararen alde jartzea baliabideak.

Gipuzkoari aitzindaritz hartzea dagokio euskararen gaian?

Euskararen erdigune geografikoan dago Gipuzkoa, eta horrek ematen dio abantaila. Horri esker, Gipuzkoa da indargune soziolinguistikoa. Horregatik izan behar dugu aitzindari, berrikuntzaren laborategi... Eta hau ez bakarrik Gipuzkoaren mesedetan, baizik eta, lankidetzan, euskararen lurralde osoaren mesedetan.

Topagunean euskalgintzako eragile jardun duzu. Horrek lagun dezake euskararen inguruan eragileen eta instituzioen arteko harremanak estutzen?

Kargu berri honetarako izendatu nautenek horixe bilatu dute. Borondatea badago. Zubiak eraikitzea eta lankidetz esparruak sustatzea izango da nire zeregina eta erronka, agintaldi amaieran egoera hobea izan dadin.

ELORRIO Tokikom
Euskalgintzan jarduna da Gipuzkoako Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria, Mikel Irizar. Debagoienean toki hedabideak bultzatzearen nabarmendu da, lanbidea Kutxan izan duen arren. Erakunde horretan eus-

kararen normalizazioaz eta komunikazioaz arduratu zen, eta Kutxa Fundazioko zuzendari albokoa izatera heldu zen. Tokikomeko bultzagile eta lehen presidente izana da. Hain justu ere, Tokikomi eskaini dio kargu berriaren lehen elkarrizketa.

Bulego berria Donostiako erdigunean duen arren, Elorrion bizi da.

Eskerrik asko, lehenik eta behin, kargua hartu, eta lehen elkarrizketa Tokikomi emateagatik. 25 urte ibili naiz toki hedabideen garrantzia azpimarratzen, eta logikoa da keinu hau egitea. Interes gai bihurtu naizen momentuan ulergarria da.

Zigor Etxeburuak utzitako lekuan diharduzu lanean. Baduzu haren politikak jarraitzeko asmorik?

Etxe honetan badago ardatz bat hizkuntzaren gaian oso atzetik datorrena eta eten handirik izan ez duena. Lehenago egon diren euskara zuzendariak ere metatu dute aurrekoek egindakoa. Ñabardurekin, erritmo ezberdinekin, hobekuntzekin... baina koherentzia batekin. Duela urte asko erabat erdalduna zen etxea gaur egun elebiduna da. Eta ez nator lehendik ondo egindako ezer apurtzera. Egongo dira egokitzapen batzuk, edo ñabardura batzuk, baina, lehengo ildotik jarraituko dugu.

Bizikidetz, zelan?
Hiru ardatzen gainean. Bata, askatasuna. Pertsoneri aitortu behar zaie arautu gabeko esparruetan hizkuntza hautatzeko eskubidea dutela. Bigarrenez, hautuen arteko berdintasuna

behar da, bestela, askatasun faltua litzateke eta. Ulermenaren kontua jarri behar da erdi-erdian. Denok daukagu ondokoa ulertzeko ardura. Berdintasunak eskatzen du oreka. Gipuzkoan bi hizkuntza ofizial daude. Baina horietako batek, gaztelaniak, ditu 500 milioi hiztun eta, gainera, legez derrigorrez jakiteko beharra gaztelaniari aitortzen zaio, ez euskarari. Kasu horretan, berdintasuna lortzeko, hizkuntzen arteko oreka lortu beharko da, eta, horretarako, Gipuzkoako erakundeek eta eragileek egin behar dugu esfortzua euskarak eduki ditzan berezko esparruak, oso berezko izango dituenak, eta esparru horietatik eragina eta prestigioa eman euskarari.

Hirugarren ardatza?
Justizia. Bizikidetz justiziaren gainean oinarritu behar da. Euskararen kasuan, ez dugu ahaztu behar, esaterako, nik neuk gaz-

“Durangaldean uste dut lankidetz falta dela. Gipuzkoan ohitura handiagoa dago elkarlanerako”

Arnasguneotan Uemak lan handia egin du.

Uemak oso lan ona egin du arnagune horiek indartzen. Dena dela, udal handiagoak ere batu dira azkeneko agintaldian Uemara: Tolosa, Zarautz, Bergara... Nire planteamendua da Uema indartzea.

Gipuzkoako Aldundian diharduzun arren, Bizkaiari bizi zara. Elorrion. Zein irakurketa egiten duzu Durangaldeko euskararen erabileraz?

Durangaldean badago ikusten dena baino gaitasun handiagoa. Durangaldeak zubi lana egin dezake Gipuzkoaren eta Bizkaiaren artean. Bizkaiaren baskofoniaren esparrua da Durangaldea, hutsuneak badituen arren. Esaterako, eskaintza turistikoaren barruan, hizkuntza uztartzea beharrezkoa du. Eskaintza turistikoan, gaur egun, indigenismoari, bertako horri, bereizten zaituenari, balioa ematea inportantea da.

Beste ezer sumatzen duzu faltan Durangaldean?

Uste dut lankidetz falta dela. Gipuzkoan ohitura handiagoa dago elkarlanerako gizarte ekimenaren eta erakundearen artean. Bizkaiari hori batzuetan izaten da, baina beste batzuetan ez. Eta Durangaldean hori bultzatzea posible da. Efektu biderkatzaila izango luke berehala.

Bizkaiko Urtxintza Eskola
Zabalbide 26, beheko, 48106 ELORRIO, t. 94 432 04 45
www.urtxintzaeskola.eus
urtxintza@urtxintzaeskola.eus

2015-2016

Astialdiko Begirale
ikastaroa - Durangon

PROGRAMA
-Arte dinamikak.
-Psikologia ebolutiboa.
-Soziologia.
-Begiak tipologia.
-Sexualitatea.
-Zehar lerroak: Hizkuntza, kulturartokotasuna, ...
-Udalekuak eta kanpamenduak.
-Euskal Herria hazten.
-Lehen soroepenak, ...

IKASTAROEI FITXA
-BALDINTZAK: 2015eko abendua baino lehen 18 urte beteta izatea
-IRAUPIENA: 200 ordu teoriko eta 120 ordu praktiko.
-DATAK: Asteburuetan, hilabetean bitan, ikasturte batean.
-TITULAZIOA: Eusko Jaurlaritzak lizentziatutako Titulazio Ofiziala.
-PREZIOA: **DOAN** Amanikomunazgoko Euskararen Zerbitzuan parte-hartzen duten herritarrak

Eman izena!
Irailaren 1etik 10ra
Durangoko Maitasunaren Arriakomunazgoko
Larledak 6, Durango
Tel.: 94 623 25 22
euskal@urtxintzaeskola.org

urtxintza
ESKOLA

Emakume Eskolako ikastaroetan izena eman daiteke

ELORRIO J. Guenetxea

Elorrioko Emakume Eskolak ikastaro bitan izena emateko aukera eskaini du. Alde batetik, enplegurako motibazio eta lan bilaketa tailerra izango da irailaren 21etik aurrera. Olga Bayón irakasleagaz, lan-merkatuan emakumeek bizi duten egoeraz hausnartzeaz gainera, tresna pertsonalak eta autoenplegurako teknikak landuko dituzte. Bestalde, auto-

Informazio puntuak ipiniko dituzte kalean, eta Interneten ere blog bat elikatuko dute

defentsa feminista ikastaroan Maitena Monroygaz egunero-kotasunean gertatzen diren eraso-erantzuteko, eta egoerari buelta emateko mekanismoak eta jokaerak landuko dituzte urriaren 17an. www.elorrio.net webgunean izena eman daiteke ikastaroa hasi baino bost egun lehenagora arte.

Musikagaz ekingo diete aurten Ferixa Nausikoetako jaiei

Garamenditar Agustin Musika Eskolak abiatuko ditu jaiak, bihar arratsaldean

ELORRIO Jone Guenetxea

Ferixa Nausikoetako jaiei hasiera ofiziala zapatuan emango dieten arren, gaur hasiko dira motorrak berotzen Elorrion. Izan ere, kontzertuak izango dira txosnetan, Sermond's eta Governors taldeekin.

Bihar, berriz, arratsaldeko 17:30ean, Elorrioko II. Artzain Txakur Txapelketa jokatu du-

te San Agustinen. Iaz berreskuratu zuten lehiaketa hau, urteetan antolatu barik egon eta gero.

Iluntzean, berriz, txupinazoaren txanda izango da. 25. urteurrena ospatzen dabilen Garamenditar Agustin Musika Eskolak jaurtiko du aurten txupinazoa. Rosa Azkarate musika eskolako zuzendariak izango du txupinazoa botatzeko ardura.

Udaletxeko balkoitik sorpresaren bat edo beste eskainiko dutela aurreratu du Azkaratek.

Gauean, berriz, Elorrion tradizio handia duen danborradak giroa alaituko du.

60 postuko azoka

Ferixa Nausikoei izena ematen dien ekitaldia domekako azoka izaten da. Aurten, azokan ipini-

ko dituzten 60 postuetan, hainbat ekoizle elorriarren ortuari, jaki eta eskulanak egongo dira salgai. 20 postu jarriko dituzte, hain zuzen, elorriarrek. Durangaldetik ere hainbat baserriar eta artisaujoango dira Elorrion bere bere postua atontzera. Berrizko nekazariak, Otxandioko eta Abadiñoko gaztagileak, Ma-

Gaur gauean kontzertuak izango dira Sermond's eta Governors taldeekin txosnagunean



Musika eskolako ikasleek ekainean Elorrioko plazan eskainitako kontzertua.

llabiko eta Mañariko okin eta gozogileak, Iurretako txakolin-gileak eta Durangoko eta Atxonoko bitxigileak Ferixa Nausikoetan protagonista izango dira.

Urtero bezala, gazta lehiaketa burutuko dute gaztarik onena aukeratu eta saritzeko. Azokak 10:00etan zabalduko ditu ateak eta eguerdiko 14:30era arte izango da zabalik.

Datozen egunetan ere ez da jai girorik faltako Elorrion. Astelehenean, esate baterako, koadrilen bazkaria izango da. Datorren zapatarako, osterara, Sukalki Eguna prestatuko dute. Iluntzean, berriz, Esne Beltza eta Skakeitan taldeek kontzertua eskainiko dute.

Maiztegi eskolako bigarren solairuko leiho guztiak aldatu dituzte

IURRETA A. Basauri

Kristal bikoitza eta itxiera termikoa duten leihoak ipini ditu udalak Maiztegi herri eskolako bigarren solairuan. Ikasturtea hasi orduko, ikastetxea "egoera onenean" egotea izan dute helburu, eta instalazioen energia eraginkortasuna hobetzea. Horretarako, 50.000 euroko aurrekontua izan dute, ohar baten bitartez jakin eragin dutenez.

Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, "guretzat oso garrantzitsua da eskola hobetu eta zaharberritzea. Baita instalazioak erabiltzaileentzat egoera onenean egotea ere: ume, irakasle eta familientzat. Hurrengo urte bietan, leiho guztien aldaketarekin jarraituko dugu. Hartara, kostu energetikoa murriztu egingo dugu".

Iaz hasitako lanak

Iaz hasi ziren leihoak aldatzeko lanok; orduan, 40.000 euroko inbertsioa egin zuten, azaldu dutenez. Datozen bi urteetan leiho guztiak aldatuko dituzte.

Eskola legeztatze plan berezia Aldundiaren baietzaren zain dago

EHBildu eta EAJren botoekin aho batez onartu zuten plana azken udalbatzarrean

ATXONDO J. Derteano

Eskola berria eraikitzeke udalak jaurlaritzari emandako baimena legez kontrakoa zela argudiatuta, eskola pareko etxebizibitza blokean bizi diren 12 bizilagunek auzitegira jo zuten 2011n. Prozesu luze baten ostean, EAEko Auzitegi Nagusiak

aurtengo otsailean emandako epaiak dio, lizentzia bertan behera utzi, eta eraikina bota egin behar dela. Baina, sententzia berean, lizentzia legeztatzeke zer egin behar zen ere argitzen zuen: tramite administratibo bat. Urrats horiei jarraituz, beharrezko datu denak jasotzen

dituen plan berezia gobernu taldeak landu, eta udalbatzarrean aho batez onartu ondoren, dokumentua Aldundiaren eskuetan dago, behin betiko onarpena emateko zain.

Sententziak zioen plan orokorrean ez zeudela eskolaren gaineko datuak xehetasunez edo zehatz-mehatz jasota. Horiek jasotzen dituen plan berezia dekretu bidez onartu zuen Rosa Elizburu alkate ohiak. Planak alegazio bi jaso zituen: eskola ondoko bizikideena eta EAJrena. Udalbatzarrean ez zen alegaziorik onartu. Plana, ordea, aho batez irten zen aurrera. EAJk, batez ere, plana aurrera eramateko formak salatu zituen, baina eskolaren alde egonik, aldeko botoa eman zuen.

Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren erabakia hile biren barruan jasotzea itxaroten du. Atxondo 7.000 biztanletik beherako herria denez, Aldundiari dagokio behin betiko onarpena egitea.



Atxondoko eskolako eraikin berria eztabaidagune izan da azken urteetan.

Asteon hasi dira pilotalekua konpontzeko obrak

GARAI Markel Onaindia

Aste honetan bertan hasi dituzte herriko pilotalekua konpontzeko obrak. Hormak ez daude egoera onean, eta teilatuan ere itogin batzuk daude. Egoera ikusita, konpontzeko beharra ikusi zuen udalak, eta obra

Konpontzeko beharra ikusi zuen udalak, eta obra 30.000 eurogatik adjudikatu zuen

30.000 eurogatik adjudikatu zuen. Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza bat daukate, 12.300 eurokoa, hain zuzen ere. Hormak konpontzeaz gainera, kirol instalazioaren segurtasun neurriak hobetuko dituzte, eta teilatu-hodia ere konponduko dute.

Udaleko arduradunek adierazi dutenez, kontratatutako enpresak hile bi beharko ditu, asko jota, obrak burutzeko.

Legañon, amaitutzat eman dute harresitik kanpoko arkeologia lana

Erdi Aroko hilerriak datu berririk ez duela ekarriko uste dute arkeologoek



Arkeologoak Erdi Aroko hilerriko aztarnetan lanean, iazko abuztuan.

BERRIZ Amaia Ugalde

Aurten hamazazpi hilobi topatu dituzte Legañoko Erdi Aroko hilerrian, eta baita kanposantuarren hegoaldeko muga ere. Badakite hilerria zelakoa zen gutxi gorabehera, baina hari lotutako herrixka non zegoen, oraindik misterioa da. Abuztuko indusketa lanak amaitu eta gero, Roman Rodriguez indusketaren arkeologo arduradunak azaldu du topatu dituzten aztarnak orain arte aurkitutakoen antze-

rakoak direla: "Hilobiak mota berekoak dira, ez da eboluziorik igartzen". Bertako indusketek informazio berririk ekarriko ez dutela-eta, alboko lursailaz hitz egin du arkeologoak; han ikusten ditu oraindik aurrerako ikerketagaiak, XIX.mendeko kanposantua egon zen lekuan.

Bertan, zutunik baina jaus-teko zorian, hilerria mugatzen zuen horma zatia dago. Roman Rodriguezek azaldu duenez, horma horretako harriak zaha-

rragoak dira: "XIX. mendea baino lehen egondako ermita baten harriak berrerabili zituzten hilerri hartan". Zonalde horretan, beraz, bi garaitako aztarnak daude ikertzeko: XIX. mendeko hilerrikoak eta Erdi Aroko ermitakoak. Aztarnen artean, XIX.mendean ehortzita-ko gorpuen hezurak daude.

Hil honetan udal arduradunekin berba egingo dute arkeologoek, eta lanekin zelan jarraitu adostuko dute.

Gerra garaiko musikarien bizitza, gaurko musikarien ahotik

BERRIZ Amaia Ugalde

Aurten ere irailaren 11n Frankismoaren biktimak gogoratzeko egitaraua prestatu dute Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak eta udalak. Aurten, errepresioa jasan zuten Berrizko musikari eta musikazaleak oroitu dituzte kultur etxe-ko ekitaldian. Gaur egungo Berrizko sei musikaririk gerra garaiko sei musikariren berri emango dute; tartean, esaterako, Modesto Arana abadea, batailoi bateko kapilaua izateagatik kartzelaratu zutena.

Webgune berria

Irailaren 11n, 18:00etan hasiko dituzte ekitaldiak, Felipe Urtiaga plazan. Lore eskaintza egingo dute, eta gerran hildako berriztarren zerrenda irakurriko dute. Gero, kultur etxean izango da musikariren ekitaldia. Han, gainera, Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak webgune berria aurkeztuko du. Bertan publikatu dituzte orain arte sortu duten materiala eta topatu dituzten dokumentu eta argazkiak.

SEI HANKAKO MAHAIA

NESKUTZ RODRIGUEZ
SQ-2D



TTIP-aren arriskua Durangaldean

TTIP-a, Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzat Transatlantikoa, oraindik oso ezezagun egiten zaie herritarrei. EAJK, PSOEek eta PPK enplegua sortzeko baliabide ezinbestekotzat saldu nahi ditugite akordio hori, baina errealitateak erakutsi du akordio horrek ondorio larriak ekarriko dizkigula gure eguneroko bizitzan. Besteak beste, elikagaien segurtasunean, lanaren babesean, eta baita demokrazian ere.

Durangaldearen industrializazioa dela-eta, enplegua desegonkorragoa izango da, eta gure lan eskubideak murriztuko dira. Ez dezagun ahaztu Estatu Batuek ez dutela Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmen asko berretsi nahi izan; oinarrizko lan-arauei dagozkienak, hain zuzen. Horrek ondorio larriak ekarriko dizkie nekazari eta abeltzainei, eta beraz, baita kontsumitzaileei ere. Zuhurtasun-printzipioa erabat alboratuta geratuko da, eta kontsumitzaileek eurek erakutsi eta frogatu beharko dute zerbait kaltegarria den ala ez. Hartara, atek zabalduko zaizkie hormonekin tratatutako haragiei edota kloroz garbitutako oilaskoei. Gainera, Estatu Batuek jatorrizko izendapenak kendu nahi dituzte, euren arabera, euren produktuak ezin direlako lehiatu jatorrizko izendapena dutenekin, arazo geografikoak tarteko.

Hauxe da inposatu nahi duguten errealitate berria: botere legegile eta ekonomiko handiagoa duten multinazional handiak, eta ez demokratikoki aukeratutako erakundeak. Ordua da mobilizatzeko eta TTIP-ari ezetz esateko. Fracking-a gelditu dugu, eta TTIP-a ere gelditu dugu!

**Erredakzioan itzulia*

Muntsarazko jaiak hasiko dituzte, gaur

Gaur, 19:00etan altxatuko dute Donien Atxa

ABADIÑO Itsaso Esteban

Gaur hasi eta domekara arte, Muntsaratz auzoko jaiak gozatzeko egitarau zabala prestatu du Muntsaratz Auzo Elkarteak. Jaiak hasiera emateko, 19:00etan Donien Atxa altxatu ostean, 19:15ean, eta parrilada eta Xai-bor DJaren saioa, ondoren.

Ohi bezala, Mozorro Eguna egingo dute jaien bigarren egunean, bihar. Goizean goizetik gauera arte, jai giroa naberria izango da Muntsaratzan.

Umeentzako aproposak diren hainbat ekimen izango dira goizean: buruhandiak, puzgarriak, eta ludoteka, esaterako. Paella eta tortilla lehiaketak, eta mus eta tute txapelketak ere burutuko dituzte egunean zehar, eta gauean, 22:00etan hasiko den Anima-t diskotekagaz amaituko dute zapatukoa.

Domekan ere, egun osoan egongo da zer eginga eta zer gozatu Muntsarazko jaietan: umeentzako herri kirolak eta herri bazkaria, kasurako.

Diru-laguntza eskaria egin dezakete euskara ikasleek

Kultur etxean eta mediatekan egin daiteke eskaria

ABADIÑO I.E.

2014-2015 ikasturtean euskara eskoletara joan direnek egin dezakete udalak ematen duen diru-laguntza jasotzeko eskaria. Irail osoan zehar egin ahalko da eskaria, Errota kultur etxean zein udal mediatekan.

Udalak euskara ikasleei ematen dien diru-laguntza hori jaso ahal izateko, baldintza bi bete beharko ditu eskatzaileak: herrian erroldatuta egotea, eta ikastaroetan gutxienez %80ko partaidetza eduki izana.

Eskariagaz batera, nortasun agiriaren fotokopia, matrikula ordaindu izanaren agiria, eskaltzearen ziurtagiria eta kontu-zenbakia aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

Gobernu taldeak azaldu duenez, iaz 37 abadiñarrek jaso zuten euskara ikasleentzako diru-laguntza, eta udalak 7.000 euro bideratu zituen horretara. Era berean, Berbalagun taldeetan parte hartzeko izen-ematea ere irailan zehar egin ahalko dela jakinarazi du udalak.

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

momotx
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

Zornotzak errefuxiatuak hartzeko mozioa aurkeztuko du HiriEkimenak



Ezkerraldean Alba Gutierrez eta Abel Isasi HiriEkimeneko zinegotziak ekaineko udalbatzarrean.

ZORNOTZA J. Derteano HiriEkimenak azken 50 urteetako “krisi-humanitariorik handienaren aurrean” gaudela deritzo, eta egoera horri maila lokalean ere aurre egin behar zaiola. Horregatik, beste hainbat herritan egin den antzera, Zornotzako Udalak errefuxiatuak hartzeko konpromiso ofiziala har dezala gura du. Zor-

notza errefuxiatuentzako herriaterpe izendatu guran, horren gaineko mozioa aurkeztu dute. Bozeramaileen batzordean eztabaidatu, eta udalbatzarrerera eramatea da asmoa.

Udal jabetzako etxe hutsak HiriEkimeneko kideek ekintza zehatzak jaso dituzte mozioan. Errefuxiatuei udal jabetzakoak

diren etxebizitza libreak eskaintzea proposatu dute, eta, behar balitz, baita Kutxabanken jabetzakoak diren bizileku hutsak ere.

Besteak beste, egoera kudeatzen lagunduko lukeen lan-talde bat ere sortuko litzateke, errefuxiatuekin lan egiten duten CEAR Euskadi eta Gurutze Gorriko kideek osatuta.

Euskara nahieran ikasteko aukera AEK, euskaltegi eta barnetegian

ZORNOTZA J. D. Zornotzako AEK-k eta udal euskaltegi eta barnetegiak ikasturte berriko izen-ematea hasi dute asteon. Udal euskaltegiko nobedadeen artean, Jardun Biko Irakaskuntza dago, ikasleen euren iritzi eta eskariak aintzat hartuz sortu dutena. Aukera berri honek klase orduak gutxitu —astean ordu eta erdiko hiru klase— eta irakaskuntza prozesua nor bere kaxa osatzeko aukera eskaintzen du.

AEK-k, esaterako, barikue-tan euskaraz ahalik eta erosoan eta lotsa barik jarduteko aukera eskainiko du eta, lehenengoz, hiru orduko ikastaro trinkoak ere eskainiko dituzte. Barnetegiaren eskaintzaren oinarria neguko eta udako ikastaro trinkoak dira. Egunean 24 orduz euskaraz bizitzeko aukera eskaintzen dute.

> DURANGALDEA ASTEON

Herrian, gidari euskaldunekin

ZORNOTZA > Irailako hiru zapatutan egingo dituzte Udaleko Euskara zerbitzuak antolatutako ibilbideak. Gidari euskaldunekin Zornotzako baseliza eta parajeak ezagutuko dituzte ibilaldi horietan. Irailaren 12an, 19an eta 26an, Gudari kaleko autobus geltokitik aterako dira 08:30ean, eta autobus zerbitzua egongo da bueltarako ere.

Ahal Dugu Euskadi Pinondo Etxean

DURANGO > Irailaren 9an, 19:00etan, Durangoko Pinondo Etxean elkartuko dira Ahal Dugu Euskadi taldeko batzarkideak deialdi horretara bertaraten diren Durangaldeko herritarrekin. Herritarrek daukaten kezka eta proposamenak jaso gura dituzte Podemoseko batzarkideek eskualdeko egingo dituzten batzar horietan.

Jauregizahar ireki dute, baina azterketekin jarraituko dute

ZORNOTZA J.D. Abuztu hasieran arkakuso izurri bat agertu zen Jauregizahar auzoan, eta parkea itxi zuten. Harrezkero, hainbat bider fumigatu dute parkea, eta eguzten honetan ireki dute berriro herritarrentzat. Arkakuso izurria

“erabat kontrolpean” dagoela adierazi dute udaletik, azken azterketak hori adierazten duten emaitzak eman dituela, baina horrek ez du esan nahi ekintza denak amaitu dituztenik. Gai horietan aditua den enpresakune hartako egoeraren gaineko azterketak egiten jarraituko du. Arkakuso izurria sortu zenean, udalak jakinarazi zuenez, inguruko lonja partikular batean izan zuen sorburua. Lonja hori zigilatu eta garbitu egin zuten.

Eubako jaiak ospatuko dituzte asteburuan

ZORNOTZA J.D. Gaur hasi eta astelehenera bitartean Euban jaiak ospatuko dituzte. Gaur umeentzako puzgarriak egongo dira goizean, eta mus txapelketa jokatu dute iluntzean. Bihar eguerdian, umeentzako zein nagusientzako bazkariak eskainiko dituzte, eta bazkalostea zein gaua

Xaibor DJaren musikak giro-tuko du.

Domekan, 18:30an, Zeaniko antzerki taldeak *37 bentanea*, *38 pasilloa* izeneko antzez-lana eskainiko du, eta 21:00etan ikus-entzunekoa erakutsiko du Deabru Beltzak taldeak. Astelehenean briska txapelketa jokatu dute.

Leike Aroztegi eman dute iPad-a

DURANGALDEA > Durangoko Leike Aroztegi eman dute iPad-a. Durangoko Leike Aroztegiaren emandako 500.913 zenbakiko txartela izan da Salerosketak Be Euskeraz ekimenaren irailako zozketan saria jaso duena. Denda horretako erosleren batentzat izango da, merkataritzan euskararen erabilpena bultzatzea helburu duen ekimen horrek emango duen 18. iPad-a.

Adinean aurrera euskara ikasi gura eta...

Badira 7 edo 8 urte, Durangoko Udalak, Gizarte Ekintza sailetik, adineko jendearentzako euskara ikastaroak bideratu zituela. Euskara ikasteko aukera eskaini ziguten, eta gutxi batzuk animatu egin ginen. Garai hartan, Udal Euskaltegiaren hasi ginen ikasten, euskararen ezagutzak motibatu gintuen, eta hurrengo urtean ere ikasten jarraituzera animatu ginen. Baina, zentroz aldatu behar genuela esan ziguten, Udal Euskaltegiaren joan beharrean AEK euskaltegiaren joan behar genuela. Ez genuen ulertzen zergatik, azalpenik ere ez ziguten eman, baina AEK euskaltegiaren joan ginen. Ordutik euskaltegi horretan ikasi dugu, AEKn, alegia. Bi talde izatetik, lau talde izatera pasatu gara; 18 ikasle izatetik, 48 ikasle izatera pasatu gara. Familia handia sortu dugu ikasle eta irakasleok, ikasteaz gain txangoak, ospakizunak, euskal ohiturak, ... denetik egin izan dugu. Gustura gaude Pinondon kokatuta dagoen etxe horretan. Baina orain, hainbeste urteren ostean, udaletik aldaketak datoz. Berriro ere Udal Euskaltegiaren joan behar dugula esaten digute, bertako irakasleen lana kolokan dagoela eta bertara joan behar dugula. Ez digute iritzirik eskatu, erabakia hartu dute, eta gure matrikula orain artekoa izaten jarraitzea nahi badugu, Udal Euskaltegiaren joan behar du-

gu; AEKren euskaltegiaren geratuz gero, geuk ordaindu beharko dugu matrikula. Horren aurrean gure desadostasuna adierazi gura dugu. Nahi dugun tokian ikasteko eskubidea aldarrikatzen dugu, baldintza ekonomiko berekin. Erabili egiten gaituzte: unean uneko politikarien erabakiaren arabera toki batera edo bestera eramaten gaituzte. [...] Haserre gaude, oso. Ez gara umeak, pertsona helduak gara, eta zor zaigun errespetuaz tratatzea eskatzen dugu. Ez gara toki batetik bestera eraman daitekeen altzari bat. Gustura gaude AEKn, irakasleak ezagutzen ditugu, eta haiek ere bai gu. Ez dugu aldatu nahi, eta horrela adierazi diegu Durangoko politikariei, baina erabakia hartuta dagoela esaten digute. Erabaki politikoa. Bada, geuk ere hartu dugu erabakia. AEKn jarraituko dugu ikasten, edo bestela, ez gara inora joango. Ez daukagu ezer Udal Euskaltegiaren aurka, baina uste dugu gauzak ondo daudenean bere horretan mantendu behar direla. Zer lortu dute? Haserre besterik ez, gurekin ez baitute Udal Euskaltegiaren daukaten arazoa konponduko. Beraz, gutako batzuk etxean geratuko gara euskara ikasi ezinik, eta ahal dugunok matrikula ordaindu eta segi, hori da Durangoko Udalen duen euskara bultzatzeko gogoia, hori! Musu bat gure irakasleei.

Mari Carmen Salazar eta Jose Mari Juaristi AEK-n gabiltzan ikasleon izenean

Iritzia



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoek eta emandako iritzien erantzukizunik.

Berbaz

Karmele Larruzea Uriguen | Pedro Uriguenen iloba | Zornotza, 1933

“Osabak ‘Gora Euskadi Askatuta’ esan zuenean errematatu egin zuten”

Pedro Uriguen gudari zornotzarrarenak izan daitezkeen hezurak lurpetik atera dituzte Mendatan



> BERBAZ Jone Guenetxea
Mendatako baserri baten ondoan zauriturik zegoela errematatu zuten faxistek Pedro Uriguen gudari zornotzarra. Bere heriotzaren kontakizuna belau-naldiz belaualdi horrela transmititu dute Uriguenen familian. Joan zen astean, Paco Etxebarria Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak familiak seinalatutako lekutik haren hezurak atera zituen. Senitartekoez emozioz bizi izan zuten momentu hori.

Nor izan zen Pedro Uriguen?
Nire osaba izan zen, gure amaren neba.

Zein ibilbide izan zuen Mendatan hil zuten arte?

Otxandio batailoian Oizetik ihesi etorri ziren asko. Baina, asko. Goitik bonbak jaurti, eta harri-patu egin zituzten. Hartara, nire osaba zaurituta gelditu zen. Ondoan baserri handi bat zegoen. Bertakoek beldur handia zuten, baina, sabaian leiho bat zegoen, atzeko aldera ematen zuena, eta dena ikusi zuten handik. Frankistak heldu zirenean, zaurituta topatzerakoan hauxe esan zion batek, kapitainak-edo: “Dinos viva España”, eta osaba isilik gelditu zen. Bigarren ere esan

zioten: “Dinos viva España”. Hirugarrenez esan ziotenean, “Gora Euskadi askatuta!” erantzun zien, eta errematatu egin zuten. Inguru hartan hainbat egon behar dira lurperatuta, asko hil zituzten eta.

Nork lurperatu zuen?

Baserrikoez lurperatu zuten, gauean. Dokumentazioa kendu zioten, eta beste guztiarekin lurperatu zuten. Horrela, lehenengo momentutik jakin genuen non zegoen. Gure aitak eta amak beldur handia zuten, eta ezer gutxi esan ziguten. Baina, gero, osaba Mendatan zegoela hasi ziren esaten, eta txiki-txikitan hara joaten hasi nintzen ni neu ere, osabekin eta Txiletik etorritako beste osaba frailearekin. Baserrira joan garen guztietan oso ondo tratatu gaituzte.

Esan zizueten lekuan egon dira arrastoak?

Kokapenari buruz, ez dugu zentimetro baten ere hutsik egin Aranzadikoak etorri direnean.

Zelan jakin zenuten gertatutakoa?

Lurperatu zutenek, dokumentazioa hartu, eta Larrako komentura eraman zuten, nor edo nork

ezagutzen ote zuen galdetzeraz. Larran baietz esan zieten, ezagutzen zutela. Hiru anaia fraile zituela erantzun zieten, eta leku onera joan zirela galdetzeraz. Dokumentazioa jaso zuten, eta horrela jakin genuen dena.

Zuk momentu horretan hiru urte zenituen. Bederatzi urteko zure ahizpa bertara joan zen.

Amama eta izekoagaz joan zen, eta non lurperatu zuten ikusi zuten. Gorosti bat zegoen, eta hantxe ipini genuen gurutzera. Arbola hura jausi egin zen, eta orain urte bi, 75. urteurrenean, lehengusinen artean gurutze berria eraman genuen bere argazkiagaz. Txiki-txikia nintzen, eta ez daukat horren akordurik, baina etxean entzundako dena ondo grabatuta geratu zait.

Familian gertatutakoa jakin izan duzue. Zergatik erabaki duzue momentu honetan indusketa egitea?

Nire izeko batek bere nebatxoa atera gura zuela esaten zien beti alabei. Baina, gastu handia zelakoan geunden. Ondoren, broma baten ondorioz, ekimen hori bururatu zitzaidan niri. Ezagun batzuek argazki zahar bat eskatu zidaten. Argazkia erakutsi

nien, eta galdetu zidaten ea osabaren hezurak ekartzea inoiz ez dugun pentsatu. Garestia izango zela erantzun nien nik. Orduan, euretako batek, bidea zabalduko zidala esan zidan, eta Aranzadiko lagun batekin hartu-emanen jarri zen. Gero, ahaztuta egon gara. Larrabetez beste gorpu bat ateratzen zebiltzan, eta Vicente Larrozeak galdetu zien ea zornotzakoarekin zer gertatzen zen. Aranzaditik deitu, eta eguenean aterako zutela esan zidaten.

Zelan gogoratzen duzu osabaren hezurak lurpetik atera zenituzteneko momentu hori?



Joan zen eguenean atera zituzten Uriguenenak izan daitezkeen hezurak.

Paco Etxebarria eta bere emaztea beharrez ibili ziren. Dena argitu zenean, hezur denak arratsaldean aterako zituztela esan zigun. Haiek garbitu, eta Donostiara eraman dituzte analizatzeko. Antza denez, landa bazterrean zegoenez, behiak inguruan ibili, eta dena zapal-duta zegoen. Hezur batzuk lekuz kanpo aurkitu zituzten. Masai-lezurra, adibidez, hanken inguruan zegoen. Baina, haginak-eta, ondo bereizteko moduan. Koilara bat eta sardexka bat ere bazeuden, argi-argi ikusten ziren. Hantxe zegoen osaba, bai, esandako lekuan.

Zer sentitu zenuen une horretan?

Lasaitasuna eta poz itzela eman zidan. Dena amaitu zenean, “Gora Euskadi!” ozen oihukatu, eta Eusko Gudariak abestu genuen.

Hainbesteko ikusmina espero zenuten?

Ez, ez genuen hainbeste jende espero. Mendatako alkateak oso ondo hartu gintuen. Ikurriña ere eraman zuten, hantxe ondoan ipintzeko. Lehengusina batek lorak eraman zituen. Gauza dotorea izan zen. Pertsonaia ezagun asko etorri ziren. Oso atseginak izan ziren guztiak, andrak zein gizonak. Oso pozik gelditu gara.

Aranzadik DNA azterketa egin eta gero, zein asmo duzue?

Panteoia prest dugu, hezurak berehala emango zizkigutela uste genuen eta.

Zure familiak zelan bizi izan du egoera hau?

Lehengusinek panteoia dute, eta haien amak gura izan zuten, batez ere, hezurak hona ekartzea. Gerra sasoiaren hemen gauzak txarto zeuden, eta beldur handia genuen. Gu ere ume asko izan gara, eta umeek badakizu zer egiten duten. Etxean entzuten dutena kontatu. Gurean beldur itzela zegoen.

Jon Garaizabal Larraz | Summum Art kolektiboko kidea | Elorrio, 1980

“Harrotasun berezia sentitu izan dut beti Elorrian aritzean”

Bere herriko jaietan, Ateneoan eta Gaztetxean musika elektronikoa eskainiko du Garaizabalek

> MUSIKA Itsaso Esteban

Hainbat lagunekin kolaboratzen duzu Summum Art ekimenean. Bai, hainbat kidegaz kolaboratu izan dut hasieratik. Unai eta Aitor kideekin abiatu nuen duela lau urte Summum Art proiektua, eta azken urteetan Igor Dr. Bharat bakioarra dut kide. Beragaz daukadan proiektua da, orain gutxi, Elorrian aurkeztu genuen *Fhormak*.

Igorregaz ‘A-Srama’ proiektua ere badaukazu orain esku artean, ezta?

Bai, musika eta irudien bidez Indiara bidaiata bat proposatzen dugu ikuskizun horretan. Espiritualtasuna garatzeko Indiara bidaiatzea ez dela derrigorra adierazi gura dugu lan horretan.

Bideogintzako zure lanaren ezaugarriak zeintzuk dira?

Zuri-beltzeko irudiekin egin izan dut lan gehienetan. Hasieran, koloreko irudiekin ere egiten nuen lan, baina momentu batean kolorea alboratu, eta zuri-beltzean bakarrik aritzen hasi nintzen. Azkenaldian, berriz, kolorea sartzeko beharrezana sentitu dut. Idoia Garai dantzariaren *Dantzarima* proiekturako egindako bideoetan hasi naiz berriro kolorea erabiltzen.

Baserrian daukazu estudioan egiten duzu lan? Ematen du zuen sorkuntza mota hori lotuago dagoela hiriguneagaz...

Bai, baserrian egiten dut lan, Elorrian. Duela urtebetetik bizi naiz hemen, eta lotura handia nabari dut inguratzen nauen naturagaz. Baina, bai, egia da teknologiari oso lotuta dagoela gure arloa; ordenagailua behar-beharrezkoa dugu, esaterako.

Elorriko jaietan zelako saioa eskainiko duzue?

Ateneoan aritzen naizenean egin ohi dudana bezala, DJ saioa eskainiko dut han. Ez ditut irudiak proiektatuko Ateneoan, baina badaukat dekorazioa lantzeko asmoa. Irailaren 12an Gaztetxean eskainiko dudana emanaldian, aldiz, bai, musika eta irudia uztartuko ditut.

Sarritan irakurri dugu Summum Art izena Elorriko jaietako programetan...

Bai, askotan aritu gara Elorrian. Gaztetxean, Arriolan, hainbat tabernatan... Eta beti harrotasun berezia sentitu dut Elorrian aritzean. Orain hamarkada bat Gaztetxean musika elektronikoa egiten hasi ginenean, batzuek gogor kritikatu gintuzten. Baina ez genuen



Irailaren 12an, musika eta irudi emanaldia eskainiko du Garaizabalek, Elorriko Gaztetxean.

amore eman, eta orain ikusten da saiatzeak merezi izan duela. Edozelan ere, Elorrian beti aurkitu dugu gauza berriak hartzeko zabalik dagoen jendea.

Urte asko dira elektronikaren mundura gerturatu zinetela.

Bai, badira hamabost urte gu honetan hasi ginela, eta esan du-

dan bezala, sasoi hartan askok gutxietsi egiten zuten elektronika. Drogarekin lotzen zuten...

Azken urteetan aldatzen joan da hori.

Gutxinaka jendea ikuspegia zabaltzen joan da, bai. Jaiak disfrutatzeke modua ere asko aldatu da, eta musika elektronikaren aniztasuna asko garatu da. Musika elektronikoko pausatua ere asko entzuten da.

Orain modan dagoela dirudi...

Bai, baietz esango nuke. Lehen jendea Ibizara-eta joaten zen, baina bazirudien gure herrietan ezin zela terraza batean musika elektronikoa entzuten egon... Hori aldatzen hasi da, baita Durangaldean ere: herrietako txosnaguneetan ere elektronika emanaldiak programatzen dira.

Zer arlotan eman zenituen lehenengo pausoak, bideogintzan ala musikan?

Musikarekiko zaletasuna beti eduki dut, eta geroago deskubritu dut irudiarekiko nire interesa garatzeko euskarria: bideogintza. Duela lau urte ekin genion bi arlo horiek Summum Art proiektuan elkartzeari.

“**Baserrian egiten dut lan duela urtebetetik; lotura handia nabari dut naturagaz”**

“**Orain 10 urte jende askok gutxietsi egiten zuen musika elektronikoa”**

Musikari eta bideogintzari loturiko ikasketak egin dituzu?

Ez, ez dut horrelakorik ikasi. Hainbat urtetan, proiektu desberdinetan izan ditudan bide-lagunengandik ikasi izan dut dakidana, eta baita zerbait egin guran bidean topatu ditudan zailtasun eta blokeoetatik ere. Martxan ipini ditugun proiektu guztiak izan dira ikasbidea.

Musika asko entzuten duzu?

Bai, nire bizitzako momentu guztietan dago musika. Musika elektronikoa entzuten dut goizean, eguerdian eta gauean.



Jon Garaizabal eta Igor Dr. Bharat lankidea, emanaldi batean.

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Lau eta laurogeita bi urte arteko Muxikako (Bizkaia) berrogeita hamarretik gora emakumek parte hartzen dute *Errautsetatik erne* antzezlanean. Onintza Enbeita bertsolariaren zuzendaritzapean prestatu dute antzezlana, eta, martxoan estreinatuta zuten obra euren herrian. Irailaren 11n, Izurtzako jaietan ariko dira.

Inkiszioan kokaturiko antzezlana da *Errautsetatik erne*, emakumeei buruzkoa. "Istorioko oso hunkigarria da", azaldu du Enbeita: "Antzezlanean barruan abesbatza dago, eta une batzuetan hunkitu egingo da publikoak. Protagonistetako batek 82 urte beteko ditu, eta zelan lan egiten duen ikustea ere izugarria da", dio Enbeita: "Hain zuzen, estreinaldian gure herriko gizonak negarrez ikustea izan da gure lorpenetako bat".

Edozein injustizia jasaten duten andrei omenaldia egin gura diote antzezlana. Enbeita zuzendariaren berbetan, "Inkisziotik urte asko pasatu da, baina oraindik ere edozein motibogatik hiltzen dituzte emakumeak".

Herrian hainbat lagun emakumeen ahalduz beharrez inguruan kontzientziatuta zeudela kontatu du Onintza Enbeita, eta teoriatik praktikara pasatzeko moduren bat behar

'Errautsetatik erne' obra egingo dute Muxikako andrek Izurtzan

Irailaren 11n, 20:00etan, ariko da Izurtzan Muxikako andren antzerki taldea



Inkiszioan kokaturiko antzezlana da 'Errautsetatik erne'.

zutela. Horretarako, ezin aproposagoa izan da antzerki taldea sortzea. "Urte askotan ikusezin izan diren emakumeak bistara ateratzeko modua izan da".

Beste herri askotan bezala, Muxikan ere, "auzoetan dispersatuta" bizi izan direla beti azaldu du Enbeita, eta antzerkiari esker, hainbat emakumek harreman naturala garatu dutela.

Gure etxe bakarra lanagaz hasi zuten emakume muxikarrek antzerki munduko ibilbidea, duela urtebete. Azken 60-70 urteetako Muxikako emakumeen bizimodua kontatu zuten.

Lehenengo antzezlanean 40 emakumek parte hartu zuten, eta esperientzia betegarri hark beste 15 emakume erakarri zituen hurrengo proiekturako.

Enbeitaren berbetan, horrek erakusten du, parte hartzeko aukera ematen zaionean, jendeak erantzun egiten duela.

Emanaldi guztietan publikoak harrera oso ona egin die la azpimarratu du Enbeita: "Jendea ohartzen da ez garela profesionalak, borondatez eta intuizioz dihardugula, eta asko baloratzen du egin dugun lana".

Iraileko egitaraua kalera aterako dute Berrizen

'Ilusioa' obra izango da ikasturteko lehenengoa



Irailaren 26an, Mikel Deuna baselizan ariko da Mikel Urdangarin.

> PROGRAMAZIOA

Irailaren 18an abiatuko dute Berrizko Kultur Etxeko ikasturte berriko programazioa. Kultur Etxe barruan barik, udaletxeko lorategian, Olakueta plazan, eta Mikel Deuna ermitan izango dira 2015-2016 ikasturteko Berrizko agenda kulturalerako lehenengo hitzorduak. Kanpoan eta doan izango dira irailako hiru emanaldi horiek.

Irailaren 18an eta 25ean kale antzezlana izango dira ikusgai. Irailaren 18an, Ortzi Acostak eta David Madinabeitiak *Ilusioa* izeneko ikuskizuna eskainiko dute, 18:00etatik aurrera, udaletxeko lorategian. Zuzeneko musika, akrobaziak, umorea eta drama uztartzen dituen ikuskizuna da *Ilusioa*.

Dieguete izeneko pertsonaia-iren istorioa, *La risa es bella* izenburukoa kontatuko du, bestalde, Circortito konpainiak, irailaren 25ean. Malabareak eta askotariko jolasak darabiltza protagonistak. Publikoak ere hartzen du parte ikuskizunean.

Kultur Etxean barik, Mikel Deuna baselizan, Olakueta plazan eta udaletxeko lorategian dira emanaldiak

Irailaren 26an, bestalde, Mikel Urdangarin musikari zornotzarra bakarlarri gisa ariko da, 20:00etatik aurrera, Mikel Deunaren baselizan.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Barbaroko kidea



Trena

Geure Durangaldea lozorroan. Inspirazioa oporretara joan eta nagia jota itzuli da; trena izan du garraibide. Berririk dakarren galdetu diot, bero itogarriak ez duela asko lagundu eta tunelak luzeegiak egin zaizkiola, haren erantzuna.

Trena izan da oporraldian gehien erabili dudako garraibidea, tren urdina, gorria, lurpekoa, turistentzako, parke tematikoetako... Irudi eta gogorapen asko ekarri dizkirate geltoki beteak, bagoi barruko usainak, alboan jarri zaidanak... Tuneletik igaro garenean, filmetako zuri-beltzeko agur hunkigarrienak eta samurren haluzinazio gisa ageri zaizkit leihoan.

Lur azpira kondenuatu zuten Durangon, eta tunelean sartu ezik, ahaztu egiten dugu hor dagoela, nonahikoa izan dela beti. Trena herrietako memoriaren protagonista handienetakoa da, garrantzitsua. Denboran urrun joan beharrik ez dago, kontzentrazio eremura andreak eta gizonak, preso, ganadua balitz bezala gainezka zihoazen tren ugerrak denon oroimenean baitaude.

Siriarren exodoaren irudi lazgarriak ari dira zabaltzen hedabideak egunotan; batean, txalo artean hartu dituzte, geltokian, ahituta datozen errefuxiatuak. Jan-edanak banatu dizkiete, arnasa eman. Bestean, geldiarazi egin dituzte, tunela luzeago, ilunago bihurtuz... Beste batean, gizon bat ageri da bagoi urdinaren leihoan, begirada hara eta hona, bere seme-alabak eta emaztea topatu guran. Arrastorik ez. Banantzeak eragindako ximur-keinu tristetik malkoak darizkio... Abiatu da aire girotua isiotuta daroan tren urdina, eta ilunean desagertu da esperantzarako geltokiaren bila; tunelak aho bakarra du, ordea.



Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT
ETX
EA

EGUNEKO
MENUA
ASTELEHENETIK
OSTIRALERA



URRIAK 30 / 31
MUSIKA KONTZERTUA

EH EZTANDA!
EH-ko PUNK-OII JAIALDIA



Laster
denboraldi
berria

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

EDERTASUN GIDA



Ana Camarero.

Azala hidratatzeko tratamendua, %50 merkeago irailean

Ana Camareroren estetika zentroan uda ostean azala hidratatzeko tratamendu bat eskaintzen dute, eta deskontu berezia daukate.

Udako oporrak pasatu dira gehienentzat. Azala zaindu behar al dugu?

Bai. Seguru gehienok eguzkipean disfrutatu dugula, baina azalak ere eguzkiaren eragina sufritu du. Azala hidratatzea beharrezkoa da, aurpegian zimurrak agertzerik gura ez badugu.

Zer gertatzen da hidratazio maila egokia mantentzen ez badugu?

Azalak indarra edo distira galtzen duela. Behar baino lehenago zahartzen da, eta zimurrak agertzen dira, besteak beste. Horri aurre egiteko, azido hialuronikoan oinarritzen den hidratazio tratamendu sakon bat eskaintzen dugu gure zentroan. Gure azala gazte eta hidratatuta mantentzeko tratamendu onenetako bat da. Gainera, irailean %50eko deskontua edukiko dugu.



ILE APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK

Ana Camarero
 Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

irailaren 3tik 30era
27,50€

%50eko deskontua
 Hidratazio sakon bidezko aurpegi-tratamenduan:

PEELING-A, ANPOILA HIDRATATZAILEA, MASAJE ERLAXATZAILEA ETA MASKARA

Goenkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango
 Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474




Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Katz (erdian, azalpenak ematen), eta iazko Topaklown jaialdiko ikastaro batean parte hartu zuten ikasleak, kide baten saioa ikusten.

Marcelo Katz argentinarrak maskara eta klown ikastaroak emango ditu Durangon

Irailaren 26an eta 27an egingo dute maskara ikastaroa, eta irailaren 28tik urriaren 1era, klownari buruzkoa



Buenos Airesen antzerki eskola bat zuzentzen du Katzek.

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Durangon lehenago ere ikastaroak eskaini izan dituen Marcelo Katz aktore argentinarragaz klown eta maskara teknikak ikasteko aukera egongo da Durangoko San Agustin kulturgunean, irail amaieran. Durangoko San Agustin kulturgunek eta Ganso & Cia Durangoko antzerki konpainiak udaberriaren antolatutako Topaklown jaialdiaren hirugarren edizioaren jarraipena dira ikastarook.

Irailako eskaintza berri honi esker, ikastaro bi gidatuko ditu Marcelo Katz aktore argentinarrak, Durangoko antzokian: irailaren 26an eta 27an, maskararen antzerkiko erabilpenari buruzko ikastaroa emango du, eta klown teknikari buruzkoa, irailaren 28tik urriaren 1era.

Goizez eta arratsaldez egingo dituzte maskara ikastaroaren saioak, eta goizez bakarrik, klown ikastaroarenak.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, ez da ezelako aurretzeko esperientziarik behar bi ikastaroetan parte hartzeko. Interesa duen edozeinentzat dago zabalik, beraz, izen-ematea.

Aste barruan, goizez (09:30etik 15:00etara), 946 030 021 telefono zenbakira deituta eman ahalko dute izena ikastaroetan parte hartu gura duten-

nek, edo baita www.topaklown.com webgunearen bitartez, zein topaklown@gmail.com helbide elektronikora idatzita ere.

Ikastaro bakoitzaren matrikularen prezioa 130 eurokoa da, baina bietan izena eman gura duenari, 220 euroko prezio berezia eskainiko diote.

Gorputzaren mugimenduen eta soinean daramaten maskararen arteko batasuna lortzeko

Apirilean burutu zuten Topaklown antzerki jaialdiaren jarraipena dira irailako ikastaro bi hauek

Goizez eta arratsaldez egingo dituzte maskara ikastaroaren saioak, eta goizez, klownari buruzkoa

1986. urtetik, klownaren arloan, aktore eta irakasle lanetan dihardu Marcelo Katz argentinarrak

helburuz jardungo dira maskara ikastaroan izena ematen duten ikasleak. Izan ere, Marcelo Katz aktore eta irakaslearen berbetan, hain zuzen, aktoreek maskarekin lan eginda azalratzen dituzte ondoen antzez-tutako pertsonaien ezaugarri nagusiak. Maskaragaz egindako lana oso aberasgarria izan daiteke bai antzerkigintzaren edozein arlotan dabilentzat, bai horretan sekula jardun ez direnentzat ere.

“Tontotasunagaz jolastu” eta gozatzea da, Katz argentinarraren arabera, bestalde, klownaren helburua. Kode teatral horri buruzko San Agustin kulturguneko ikastaroan, “jolasteko ahalmena berreskuratuz, eta tabu eta aurreiritziak alboratuta libre jardutea” izango dute helburu. Katzen berbetan, pailazoak erridikuluaren arketipo unibertsalak oinarri hartzen dituen bitartean, klownak bere beldur, amets eta obsesioetan oinarritzen du bere jarduna: bere gabeziak, eta gertatzen zaizkion ezusteko eta istripuak ikuskitzuzaren ardatz bihurtzen ditu klownak. Horretan arituko dira ikastaroan.

1986. urtetik, klownaren arloan dihardu Marcelo Katz aktore argentinarrak antzezle, zuzendari eta irakasle lanetan, baina dantzaren, musikaren eta zirkoaren arloan ere ibilitakoa da. Buenos Airesen (Argentina) klownaren arloan espezializaturiko antzerki eskola bat zuzentzen du, eta esperientzia zabala du, baita, Durangoko hauek bezalako ikastaroak zuzentzen ere.

Jose Luis Mendilibar | Eibar futbol taldeko entrenatzailea | Zaldibar, 1961

“Batzuentzat, langabezia egotea baino garrantzitsuagoa da futbola”

Lehen Mailan bigarren urtez dabilen Eibarreko entrenatzailea da Mendilibar; hasiera ona izan du



Mendilibar, Arrasateko futbol zelaian, eguazteneko entrenamenduaren ostean.

> FUTBOLA Markel Onaindia

Liga profesionala hasi berri da, eta bera-gaz batera futbolarik mugitzen duen zurrubilo guztia ere bai. Zaleek erosi dute euren talde maitatuaren kamiseta, hasi dira partiduak lagunartean ikusten, eta Jose Luis Mendilibarrek dioenaren haritik, burua galdu duenik ere badago. Zaldibartarra Eibar entrenatzen dabil aurtentzen, duela 11 urte futbol profesionalean sartzeko aukera eman zion taldea. Iaz moduan, aurtentzen ere mailari eustea izango dute helburu, eta hasiera bikaina izan dute behintzat: bitik bi irabazi dituzte. Solasaldirako tartea egin dio ANBOTORI hankak lurrean dituen entrenatzaileak.

Zorionak Jose Luis, denboraldia ederto hasi duzue.

Eskerrik asko. Aurrendenboraldia ez genuen ona egin, jokalarik asko berandu etorri ziren, eurentako lau Liga hasteko egun batzuk falta zirenean. Horregatik, lehenengo partidura zer gertatuko zen jakin barik joan ginen. Baina partidu oso ona egin genuen, seriotasunez. Bigarren ere ondo jokatu genuen, eta garrantzitsuena da Athleticek ez zuela ia gol aukerarik ere egin.

Athleticen aurkako garaipena ez zen txirripaz lortutakoa izan.

Ez. Bigarren partiduan ikusi zen taldea ondo mugitu zela, eta erasoan ere erremate batzuk egin genituen. Gol bi sartu

“*Garrantzitsuena da Athleticek ez zuela ia gol aukerarik ere egin*”

genituen, eta Iraizozek hiruzpalau baloi geratu behar izan zituen.

Pozik zaude orain arteko lanagaz?

Bai. Uste dut talde ona daukagula. Lehenengo maila oso zaila da; ondo hasi zaitezke, baina gero galtzen hasten zara, eta ez dakizu zergatik. Buruari bueltak eman, eta, zergatik izango ote da? Askotan ez duzu jakiten zergatik irabazi duzun ere. Baina pentsamendu onak eduki behar dira, txarrak etorriko dira hala behar badu.

Iaz Eibarrek lehen itzuli bikaina egin zuen, baina bigarrena eskasa. Hori gertatzeko beldurra duzu?

Ezin duzu jakin. Iazkoaz, batzuek esaten dute Albentosa joan ostean hasi zirela emaitza txarrak... Ez dakizu. Batzuetan buruko kontua izaten da. Ez zaizkizu gauzak ondo irteten, eta burua gero eta nahasiago izaten duzu.

Alde psikologikoa garrantzitsu da...

Bai. Partidu bi irabazi, eta hor zoaz, papparra erakusten. Gainera, zuok, kazetariok, ondo ipintzen gaituzue, eta badu eragina. Jakin egin behar da hortik bajatzen, lurrari ukitzen. Nire lana da denak ondo egotea eta egunero beharrean segitzea. Hori da garrantzitsuena.

Asteburu honetan ez dago jardunaldirik. Geldialdia ona ala txarra izango da?

Ona izango dela uste dut. Azkenean, esfortzu handia egiten dugu partiduak irabazteko. Domekan, Athleticek aurka bero handia egin zuen, eta hiru bat jokalarik justu samar ibili dira. Bihar [atzogatik] Sportingek aurka lagunartekoa jokatu dute, batez ere gutxi parte hartu dutenek, eta asteburuan atsedean hartuko dugu. Astearterean hasiko gara hurrengo partidua prestatzen, Malagaren kontrakoa.

Ez da izango partidu erraza...

Gaitza. Talde ona, bero egingo du... Ea gu ondo ailegatzen garen, sasoi onan, eta inork minik hartu barik.

Berrito Eibarren zaude. Berezia al da zurretzat?

Bai. Futbol profesionalean debutatzeko aukera eman zidan taldea da. Ordura arte, umeekin, Lehentasunezko Mailan, Hirugarren Mailan eta Bigarren B Mailan ibili nintzen. Denboraldi oso ona egin genuen, eta hortik aurrera Lehen

eta Bigarren Mailan egon naiz. Berrito bueltan etorri, eta gainera, Lehen Mailan dagoelarik, eta etxe ondoan. Bada, oso garrantzitsua da niretzat. Andreak beti esaten dit “munduko ligarik onenean” hogeitatalde daudela, eta ni naizela horretako baten entrenatzailea. Asko esan gura du. Eibar klub lez gauzak ondo egiten dabilela uste dut, gainera.

Etiket ordu laurdenera lan egitea ez da ohikoa entrenatzaileentzat. Eskertuko duzu, ala?

Bai. Entrenatzen kanpora joan izan naizenez, gainera, bakarrik joan naiz, etxetik barik. Partidua galdu, gero etxera joan, eta zu han bakarrik egotea... Batzuetan gogorra izaten da.

Talde handietako entrenatzaileez asko egiten da berba. Baina mailari eusteko borrokan dabilen taldeetakoek ere baduzue meritua.

Gure helburua jaitsieratik libratzea da, eta, kontuan izanda beste talde batzuen helburua ere bada, bada, 2. mailara ez bajatzea Bartzelonak edo Real Madrilek Championsa irabaztearen parekoa da guretzat.

Futbola ikaragarri mediatizatuta dago. Zelan daramazu hori?

Futbolak gero eta indar gehiago dauka. Telebistako emankizunek gero eta indar gehiago badute, zale gehiago dagoen seinale da. Herrikerik zoaz, eta denek futbolaz berba egiten dute; tabernara zoaz, eta berdin... Badakizu, norbere taldearen koloreak hor daude. Baina batzuentzat, langabezia egotea baino garrantzitsuagoa da futbola. Greba edo manifestazio bat egiten da futbol partiduaren orduan, eta berdin zaie ez dakit zenbat urtean lanik barik egotea. Nik uste dut futbola ondo dagoela disfrutatzen, baina badaude gauza garrantzitsuagoak.

Entrenatzaile batzuek diote kosta egiten zaiela lanetik deskonektatzea. Zuri gertatzen zaizu?

Uste dut lan askogaz gertatu ahal zaizula hori. Makina baten aurrean zortzi ordu egiten dituzu, etxera zoaz, eta baliteke lana ahaztea. Edo ez. Baliteke makina hondatu izana, pieza guztiak egiteko astirik ez izatea, eta biharamunean lehenago joan behar izatea... Futboleko, lana buruan dago: entrenamenduak, jokalariek zelan egongo diren, aurkaria zelan etorriko den... Baina lana denbora zehatz batean egin behar duzu. Niri, lana gustatzen zait, baina ez naiz zorutzen.

“*Niri, lana gustatzen zait, baina ez naiz zorutzen*”

Hamar emakumek harmailetatik kantxarako jauzia eman dute

Pilota eskolako haurren ama batzuek esku pilota taldea sortu dute Zornotzan



Emakume taldeko kideak joan zen denboraldian.

> ESKU PILOTA Jone Guenetxea Sekula ez da berandu esku pilotan hasteko. Horixe pentsatu dute Zornotzako emakume batzuek Lagun Onak taldean, eta entrenatzeari ekin diote. Zornotzako pilota elkarteak maratonia antolatu zuen, eta Larrabetzuko emakume taldeak parte hartu

zuen. Publikoan pilota eskolako mutikoen amek arretaz jarraitu zituzten larrabetzuarren partiduak. Taldearen entrenatzaile Markel Atutxak dioenez, emakume haiek ikusirik, jokalarik gazteen amen talde hau ere entrenatzera animatu zen. "Klubean galdetu zidaten ea

prest egongo nintzen emakume hauek entrenatzeko, eta horrela ekin genion ibilbideari". Emakume taldean 30-40 urte arteko hamar jokalarik dihardute. Joan zen ikasturtearen erdian sortu zuten taldea, eta hastear den honetan ere jarraitu egingo dute. "Astean behin gelditzen

hasi ginen, eta Aste Santutik aurrera bi egunetan, dio entrenatzaileak. Ilusioz bizi dute kirola. Umeekin orduak ematen zituzten frontoian, eta orain kirol honek beraiek ere harrapatu ditu. Atutxak azaldu duenez, entrenamenduaz gainera, beraien kontura ere gelditzen dira pilotan aritzeko.

Entrenatzaileak dioenez, jokalariek beraien kontura ere gelditzen dira pilotan aritzeko

Txapelketetan ere bai

Martxoan Federazioak Larrabetzun antolatutako txapelketa bat zegoela baliatu zuten taldeko kide bik lehiaren zaporea dastatzeko. Hilabete gutxiko entrenamendua izan arren, esperientzia hori bizi gura izan zuten. Hala ere, Zornotzako jaietan izan zuten arrakastarik handiena. Umeen txapelketaren finalean, zapatu arratsaldean, jende larregi egoten dela irizita, beraien partidak goizez izatea gura izan zuten. "Azkenean, goizean arratsaldean baino jende gehiago elkartu zen. 200 lagun elkartuko ziren".

ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

Aurrendenboraldia gori-gorian

Gure inguruko talde gehienek martxan jarri dituzte euren motoreak, eta saskibaloia klub eta talde guztiak topera dabilta.

Entrenatzaile moduan, momentu benetan garrantzitsuak izaten dira denboraldia hasi bitarteko asteak: taldea batu egin behar da, martxan jarri. Jokalari bakoitzaren egoera fisikoa landu behar da, eta konpetizioa hasterakoan taldearen indarra, gutxienez, mailarik onenetik ahalik hurbilen egon dadin saiatu beharra dago. Lan hori dena zuzendu eta gidatu beharra dago, lan honen guztiaren ondorioak izaten diren lesioak ekidinez.

Batez ere, bi alde nagusi izaten dira landu beharrekoak: alde batetik, jokalaria- ren arlo fisiko eta tekniko maila onean jartzea, eta, bestetik, baita arlo taktikoa ere. Horretan, bai erasoan bai defentsan izango diren lanak ikasi, landu, eta eratu behar dira, talde bakoitzaren alderdi on guztiak partiduaren prest egoteko.

Horretan ari dira talde guztiak orain, baina, era berean, baita etorkizunean talde nagusien entrenatzaile izango diren gazteak ere, Tabirakok, Bizkaiko Saskibaloia Federazioaren bitartez, antolatu duen entrenatzaileen ikastaroan dabiltzalako buru belarri. Durangaldeko gazteak dira gehienak, eta beraien esku izango da, etorkizun labur batean, gure inguruko talde guztien lana. Hau ere prestakuntza da.

Aurrendenboraldian dabilta denboraldian emaitza onak lortzeko. Guretzat, ezin bestekoa!

Fradesek Frantziako Vichy IronMana irabazi du

Nazioartean IronMan bat irabazten duen Estatu mailako lehenengo emakumezko atleta da



Gurutze Frades helmugara heldu berrian.

> IRONMANA

Asteburuan Vichy IronManaren lehenengo aldia lehiatu dute izen bereko Frantziako herriaren inguruan, eta Gurutze Frades iurretarrak (MugarraTT) irabazi du. Garaipen historikoa izan da; estatu mailako emakumezko triatleta bat lehenengo nagusitu da nazioarteko IronMan batean. Gainera, Kōnan (Hawaii) jokatu den munduko txapelketara sailkatzeko aukerak gehitu zaizkio.

Igerian eta bizikletan jardun ostean, hirugarren tokian hasi zuen korrika saioa, lider zihuan Natascha Badmann-engandik 12 minutura. Garaipenak ezinezkoa zirudien, baina Fradesentzat ez dago ezinezkorik hankak dantzan jartzen dituenen. Bigarren itzulirako, lider zegoen. Helmugan ia bost minutu atera zizkion bigarrenari.

Bilbao Basketen kontra jokatu du bihar Zornotzak

> SASKIBALOA

Hilabete falta da Zilarrezko Adecco Liga hasteko. Zornotzak hasi du aurrendenboraldia, eta lagunarteko hainbat partidu jokatu ditu irailean. Esaterako, zapatu honetan, 19:30ean, Bilbao Basket taldeak bisitatuko du Larreako kiroldegia. Aukera ona izango da taldeko fitxaketa berriak ikusteko. Partidurako sarrerak 10 euro balio du bazkideentzat, eta 15 euro bazkide ez direnentzat. 14 urtera artekoentzat prezioa 2 eurokoa da. Sarrerak aurretiaz ere eskuratu daitezke Pozus tabernan, eta, Kapi eta El Cojo jatetxeetan.

A. Urreta podólogo

Podinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

HERNANI (MI) MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea
48200 - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 214/06

katerin ardoak

inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

**EUSKERAZ
BE BAI!**

ZORNOTZA Udal Euskaltegia

2015-16 IKASTURTEA

Astean 6 ordu, astelehenerik ostegunera (200 ordu)

Astean 3 egun taldean, beharriko lanarekin eta tutoriazekin (200 ordu)

(LANGABETUER 10 €)

Aste (100 ordu) - Dendarietako astean
Dendarietako (20 ordu) - Dendarietako beharriekin
Tubermariak (20 ordu) - Oin erantzeko eskola
Muzika taldeak (10 ordu) - Astelehenerik ostegun
Jubilatu taldeak (60 ordu) - Jaiak eta errealizazioa

(10 €)

izan-amaiera irailaren 1etik 22ra
Zornotza Udal Euskaltegia

94 6732026

euskaltegia@ametz.eus

San Pedro kalea, 5

Berrizek eskolarteko BTT topaketa antolatuko du etzi 200 gaztegaz

Berrizburu inguruan ariko dira, eta Iñaki Lejarreta zirkuitua ere erabiliko dute



Orland Isoird Berrizko alkatea eta Joseba Arregi Berrizko Bizikletari Elkartearen kidea ekimena aurkezteko prentsaurrekoan.

> TXIRRINDULARITZA J.D. Berrizko Bizikletari Elkarteak antolatuta, 14 urtera arteko 200 gaztetxo eskolarteko BTT topaketan elkartuko dira domekan, Berrizburu inguruan. Berrizko eskolarteko horrelako topaketa bat egiten duten lehenengo aldia izango da.

Joseba Arregi bizikletari elkartearen kidearen berbetan, hainbat helburu bete gura dituzte ekimen honekin: “Urtean eskolarteko 35 bat topaketa egiten dira, eta gehienak, 20 bat, errepidekoak dira. Mountain bike-ekoak, berriz, sei baino ez dira, eta Berrizko Berrizburu inguruan, BTTra bideratutako zerbait egiteko inguru paregabeak daudela iruditu zitzaigun”.

Horrekin batera, Arregik eta Berrizko alkate Orland Isoirdek azpimarratu dutenez, Berriz zein Iñaki Lejarreta zirkuitua ezagutara emateko oso aukera ona dela azpimarratu dute. Be-

Domekan, 11:00etatik aurrera mailaz maila osatuko dituzte BTT ibilbidea eta ginkana

rrizko Udalak ekimena antolatzeko “erraztasun denak” eman dizkigu”, Arregiren esanetan.

